

PQ3, Kimika Saileko Prozesuaren Industriak

Araututako hezkuntzaz gain, Joxe Kruz Zurututza publizitate arduradunak esan duenez, bestelako ikastaroak ere ematen dira Tolosako Paper Eskolan: kimika nahiz ore-paper alorreko enpresei zuzendutako ikastaroak. Hauek eta biztanleriaren beste sektore batzuek moduluakako irakaskuntza eskatzen dute, maila teknologiko altukoa, berezitua eta eguneratua.

■ Langileak ere eskolan

Enpresek bultzatuta, edota beren kabuz, lanean diharduten hainbat langileek teknologia berrietan trebatzeko eta eguneratzeko ikastaroak egiten dituzte. Tolosako Eskolan hezkuntza zikloetako modulo profesio-nalak epeka eskaintzea aurreikusten dute, langileei erraztasun gehiago ematearren.

Era berean, sektoreko enpresek hala eskatuta, fabrikazio prozesu, laborategiko teknika eta abarri buruzko ikastaroak eskaintzen ditu eskolak. Areago, Moran zuzendariak zehaztu digunez, «Tolosako Eskolatik oso urrun dauden enpresa batzuen hezkuntza beharrak asetzeko ikastaro eta mintegiak egiten ditugu. Esate baterako, Espainian, Portugalen eta Hego Amerikako hainbat herrialdetan ikastaroak eman ditugu», adierazi dute eskolakoe.

■ Irteera profesionalak

Ikasleak lan mundura bideratzeko paperaren inguruko enpresetan praktikak egite-

ko aukera eskaintzen du eskolak. Orobat, lanpostua topatzeko bi zerbitzuekin egiten du lan: Langai (Eusko Jaurlaritzaren zerbitzua), eta Berezko Lan Poltsa. Azken honetan, eskolak bitartekari lanak egiten ditu, kasu berezietan: ikasle ohiek eta enpresariak lan eskaintza eta eskariei buruzko informazioa eskatzen dutenean. Orduan, eskolak bi aldeak aholkatzen eta informatzen ditu, kontratazioan zuzenki esku hartu gabe.

Zentroko zuzendariak dioskunez, «behin ikasketak burututa, lan munduan sartzeko aukera handiagoa izaten laguntzen dute ikasturtean zehar egindako praktikek». «Eskualdeko paper eta kimika alorreko sektoreak bide ematen du zentroan ikasitako ikasleak debora gutxian lan munduan sartzeko», gaineratu du.

Kontuan izanik Tolosako Paper Eskola Espainiako Estatuan paperaren inguruko titulazio berezitua duen bakarra dela, sektoreko enpresek harreman joria dute eskolarekin, eta ondorioz, ikasleek Euskal Herritik kanpo lana aurkitzea errazagoa da.


Eskolak giza baliabideak nahiz materialak jartzen ditu industria sektore honen esku, kolaborazio akordioen bidez.

Elkarlana ikerkuntza aplikatuetarako nahiz produktuen analisi eta kalitate kontrolerako proiektuetan gauzatzen da: erabilpen sanitarioetarako paperen ezaugarrien ikerketa konparatiboa, arazketa erretxazoen ezaugarriak, ur eta isurkinen analisiak, zamen jokakera, kolak, koloratzaileak eta beste aditiboak.



EDURNE KOCH

■ Ikerkuntza aplikatuetarako eta produktuen kalitate kontrolerako proiektuen inguruko elkarlana egiten du Tolosako eskolak beste ikastetxe batzuekin.



EDURNE KOCH

■ Tolosatik urruti dauden enpresen hezkuntza beharrak betetzeko ikastaro eta mintegiak ere egiten ditu.

Papergintzaren
inguruko titulazioa
ematen duen
ikastetxe bakarra
da Tolosakoa

DB GOI-MAILAKO LANBIDE HEZIKETAKO BERARIAZKO INSTITUTUA

DON BOSCO LANBIDE IKASTETXEA



HSAOL (LOGSE) BATXILERGOAK

- A eta D ereduak.
- NATUR ETA OSASUN ZIENTZIAK
- TEKNOLOGIKOA

ERDI MAILAKO HEZIKETARAKO ZIKLOAK

- LABORATEGIA
- AUTOMOBILAREN KARROZERIA
- IBILGAILUEN ELEKTROMEKANIKA
- SOLDADURA ETA GALDARAGINTZA
- HOTZ, KLIMATIZAZIO ETA BEROAREN EKOIZPENERAKO INSTALAZIOETAKO MANTENIMENDU ETA MUNTAIA

GOI MAILAKO HEZIKETARAKO ZIKLOAK

- EKIPO INDUSTRIALEN MANTENIMENDUA
- ANALISIA ETA KONTROLA
- PRODUKTU ELEKTRONIKOEN GARAPENA
- PROZESU ETA ERAIKUNTZAKO INSTALAZIOETAKO MUNTAIA ETA MANTENIMENDUA*
- METAL ERAIKUNTZAK

(* Baieztapenaren zain)

Eta gainera, kurtsuan zehar arautu gabeko irakaskuntza arloan zenbait ikastaro desberdinak.

INFORMAZIOA: IKASTETXEAN: San Markoserako errep. z/g - 20100 Errenteria
Tel.: 943 51 04 50/54/58 - Faxa: 943 52 92 20
Web orria: hyyp://www.geocities.com/Athens/Forum/1232/bosco.html

Gurasoen Elkarteak

Euskal Eskola Publikoa



iven!
Zatoz!

G E U R I A